

# SARRERA

Gure produktua, labur esanda, erosketak egiteko karritu konbentzionalaren eraldaketa bat da. Honek tamaina txikiagoa du, gurpildun aulkira egokitzea ahalbidetzen dion iman batez lagunduta. Izan ere iman hori, gurpildun aulkiak aurrealdean dituzten gurpil txikiak eusteko metalari itsatsi egiten da.



Karrituari dagokionez, honek matxarda mekaniko bat dauka, zeinak elbarrituek eskuraezinak dituzten produktuak hartzeko aukera ematen dien. Matxarda honek bi atal ditu: Lehenengoa, pertsonaren eskuetatik gertuen dagoena Stick-a da, hots, matxarda kontrolatzeko balio duena. Bigarrena, berez, matxarda da, produktuak hartu eta karrituan uzten dituen, eta hau karrituaren albo batean egongo da. Modu horretan, elbarrietuek matxarda erabiliz produktua apalategietatik hartzeko eta karrituan eta gero kutxa erregistratzailean uzteko aukera izango dute.



Honelako matxarda mota bat da gure karrituak izango duena.